

# Izena aukeratu

*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*

Seme-alabaren izena aukeratzea buruhausteen iturria izan daiteke askotan. Izenak izana baldintzatu dezakeela pentsatzen dute askok, horregatik erabakia ez da kontu erraza.

## 1- Erregistroan

Irakurri albiste hau eta esaldia osatzeko falta diren aditzak jarri



## Haurrei izena jartzeko arazoak Paraguain

Asuncion hiriko Izen erregistroko langile batek ez du onartu guraso batzuek euren haurrari jarri nahi zioten izena. Emigdia zen gurasoek aukeratutako izena, baina langile

horrek ez du izena onartu, "bestela, etorkizunean ume horrek gurasoak gorrotatuko ditu". Azkenean, Evelyn izena jarri diote haurrari.

1.1- Bete hutsuneak falta diren aditzak jarritz:  
**jarri diote / jarri nahi zioten / ez zuen onartu**

Gurasoek Emigdia izena \_\_\_\_\_ haurrari.  
Izen erregistroko langileak \_\_\_\_\_ Emigdia izena.  
Azkenean, gurasoek Evelyn izena \_\_\_\_\_ haurrari.

1.2- Hemendik urte batzuetara nola kontatuko du Evelynek gertatu zena?  
Osatu esaldietan ez dauden aditzak.

Gurasoek Emigdia izena jarri \_\_\_\_\_, baina erregistroko langileak ez \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_ utzi izen hori jartzeko, eta azkenean Evelyn izena jarri \_\_\_\_\_.


### 1.3- Irakurri beste testigantza batzuk eta idatzi falta den aditz forma

1. Nire izena Sonia da, baina erregistroan Sofia izena dut. Gurasoek Sonia jarri nahi \_\_\_\_\_, baina izen errusiarra zen eta debekatuta zegoen. Azkenean, erregistroan Sofia izena jarri \_\_\_\_\_ gurasoek.
2. Nire ahizpari Edurne izena jarri nahi \_\_\_\_\_ gurasoek, baina garai hartan erregistroko langileak ez \_\_\_\_\_ utzi gurasoei izen euskalduna jartzen, eta azkenean erregistroan Nieves izena jarri \_\_\_\_\_ gurasoek. Duela urte batzuk aldatu zuen izena.
3. Niri Juan Carlos izena jarri \_\_\_\_\_ gurasoek. Niri ez zait gustatzen, batez ere abizena Rei delako (galegoa), eta Juan Carlos Rei... barre egiten didate.
4. Niri aitak amonaren izena jarri nahi \_\_\_\_\_, baina amak ez \_\_\_\_\_ utzi, amonak Leona izena zeukalako. Eskerrak! Azkenean, gurasoek Amaia izena jarri \_\_\_\_\_.

## 2- Izen bereziak

Erein argitaletxearen eskutik argitaratu da **Izen bereziak** ipuin-liburua. Bere protagonistek izen bereziak dituzte eta gainera, nortasun propioa ere badute. Batzuetan, lotuta daude biak, izena eta nortasuna, biak bat balira bezala. Protagonista hauen kasuan ere hala da.

NORAREN EGUNKARIA ipuinetik pasarte bat aukeratu dugu hona ekartzeko, berak egunkari erotikoa idazten du amodioaren esperoan dagoela.



Juan Modesto Arrieta Illarramendi.  
Azken urte hauetan idatzi dituen  
ipuinekin liburu hau osatu du.

### **NORAREN EGUNKARIA.** Martxoak 5 (Igandea)

*Uste dut Ingalaterrako erregina izan zela “Annus horribilis” esan zuena, berari eta bere senideei makina bat zorigaizto gertatu ondoren. Gaur, aldiz, nik esan dezaket nire “egunis horribilis” izan dela, autoa autopistan pot eginda geratu baitzait. Ia bi ordu egon behar izan dut, txaleko fosforittoa jantzita, gabonetako zuhaitz baten antzera, garabiaren zain. Erradiadorea zulatuta eta kulata (hori izan xelebrea) erreta omen dauka Opel Kadet giza joak, esan dit mekanikoak. Konponketa dezente kostatuko dela, baina ondo aztertu arte ezin duela esan zehatz. Bihar biharkoak. Gero, etxera joan naizenean, giltzarik gabe nengoela konturatu naiz. Udaltzain baten bila joan, etxera ekarri, atea palankaz ireki, lapur merke baten antzera, eta etxean sartu ahal izan naiz. Nire mila esker beroak, bihar arotz batek konponduko du erantzun hotza jaso du. Etxean sartu eta arropa eransten hasi orduko konturatu naiz hilekoa jaitsi zaidala. Altza porru!!! Zergatik ez, eguna borobiltzeko. Eta gainera bihar autobusez joan behar lanera Donostiara. Azken aldiz autobusean ibili nintzenean zutik joan behar izan nuen, baita ia pneumonia harrapatu ere, bi euroren truke. Kontsolamendu bakarra geratzen zait: biharko eguna ezin da okerragoa izan.*

**Juan Modesto Arrieta, Izen bereziak, Erein, 2011.**

Esan irakurri berri duzun ipuinaren pasarteari buruzko esaldiok EGIA ala GEZURRA diren:

	EGIA	GEZURRA
Norak oso urte txarra pasatu du.		
Gaur autoa autopistan geratu zaio, ez atzera ez aurrera.		
Bi ordu baino gehiago eman ditu garabia noiz etorriko.		
Gidari batzuek gabonetako zuhaitza ematen zuela esan diote Norari.		
Norari autoaren erradiadorea eta kulata hondatuta daudela esan dio mekanikariak.		
Etxean sartzeko giltzarik ez zuela konturatu da bertara iritsitakoan.		
Arotzak lagundu dio Norari etxeko atea irekitzen.		
Udaltzainak oso erantzun beroa eman dio Norari honek eskerrak eman dizkionean.		
Nora asko poztu da hilekoa etorri zaiola antzeman duenean.		
Donostiara lanera autobusek joatea oso ideia erakargarria da Norarentzat.		
Noraren ustez, biharko eguna hobea izango da.		

### 3- Izena laburtzeko ohitura

Izenak laburtzeko dugun ohituraz hitz egingo dugu. Horretarako, irratiko saio batean esandakoa oinarri hartuta, hizkuntzaren alderdi batzuk landuko ditugu. Audioa entzun aurretik, hitz egin lagun batekin (edo pentsatu) gai honi buruz:

- Zenbat pertsona-izen ezagutzen dituzu laburtuak direnak (Edu, Joxemi...)? Bi silabakoak al dira gehienak? Silaba batekorik ezagutzen al duzu?
- Pertsonen izenez gain, deitura edo abizen laburturik ezagutzen duzu? Eta herri edo hiri baten izen laburturik?

Eskolan, lantegian... deitzen al diozue elkarri izen laburtuarekin? Ezizenik erabiltzen duzue?



Laburdurarik  
ez,  
mesedez!...

Karlosek uste baino izen laburtu gehiago aurkitu ditu.

- Egia
- Gezurra

Karlosen ustez, hizkuntza gutxitan gertatzen da izenak laburtzeko fenomeno hau.

- Egia
- Gezurra

Gurasoei aholkatzen die seme-alaben izena aukeratzekoan, izen laburtua ere kontuan hartzeko.

- Egia
- Gezurra

X. Amurizaren ustez, izenak laburtzea ez da gaur egungo fenomeno, lehen ere egiten zen.

- Egia
- Gezurra

Euskaltzaindia gero eta gogorrago ari da jokatzeko izenak laburtzearen kontra.

- Egia
- Gezurra

Guraso batzuek ez zuten lortu bere alaba Kattalin izenarekin erregistratzerik.

- Egia
- Gezurra

Xabierren ustez, askatasun handia egon behar luke gai honetan; baina kontrol minimo bat bai.

- Egia
- Gezurra


Ez izenetan bakarrik, abizenetan ere gertatzen da silabak laburtzea.

- Egia
- Gezurra

Izen batzuekin gertatu da alde batetik laburtu egin direla eta bestetik luzatu.

- Egia
- Gezurra

## 4- Askatasun pixka bat utziko nuke



Ariketa honetan aditzean jarriko dugu arreta. Horretarako, Xabier Amurizak galdera bati ematen dion erantzuna ekarri dugu hona. Erreparatu, bai galderan eta bai erantzuneko pasartze batzuetan, aditza modu hipotetikoan agertzen dela.

Gauzak nola diren edo izan diren esateko, aditza indikatiboan erabiltzen dugu; baina hipotesiak egiterakoan, usteak edo desirak adierazteko, aditza era hipotetikoan jartzen dugu (askotan baldintza hipotetikoan ondorio bezala joaten den aditz-forma horretan):

- *Nik gai hori arautuko nuke. Zuk zer egingo zenuke?*

- *Nik ez nuke debekatuko, ez litzateke debekatu behar.* (Inpersonala denean, jeneralizatzen denean, Nor kasuan jartzen da, adibide honetan bezala)


Konturako zinenez, aditz laguntzaileak *-ke* hartzen du bukaeran.

Osatu testua, hutsuneetan aditz egokia aukeratuz. Arreta jarri testuaren esanahiari.

**ESATARIA:** Arautu egin beharko **nuke / ginateke / litzateke** hau guztia? Edo iruditzen zaizu libre utzi beharko **lukeela / litzatekeela / litzateke**?

**XABIER AMURIZA.** Nik askatasun pixka bat ez **dut / nuke / litzateke** gaizki ikusiko. Orain erregistratzen denean, ba, burugogor jarri beharrean, ba, Katalin edo Kattalin, bi formak onartzea. Baina hor burugogor jarrita ez dugu ezer egiten. Gero beste kontu bat da bakoitzak bere izena nola erabili nahi duen...

Subjektuak berak onartzen duenean, ba, berak hori egiten duenean burugogorkeria **gara / du / litzateke**, ba, ez uztea gizonak izena nahi duenaren arabera erabiltzea. Baina, koño, araudi minimo bat beharko **lukete / du / litzateke**, baina zabala, askatasun handikoa.



## 5- Iritzia ematen

Atazari bukaera emateko, gai honi buruz hitz egin dezakezu lagunekin, edo pentsatu pixka bat gai honetaz eta zure iritzia idatziz eman. Hona galdera batzuk gaiaz berba egiteko:

- Zein dira zure gustuko izenak? Eta gustuko ez dituzunak?
- Izen laburtuak gustatzen al zaizkizu? Zein da zure iritzia?
- Komentatu entzugaian Karlos Cidek esandakoa: “Atera dudan ondorioa da gurasoek ondo pentsatu behar dutela zer izen jarri seme-alabei. Eta ez izena bakarrik, baita izen ofizialetik asmatuko duten izen laburtua. Ze, kalean jende askok izen laburtuaz deituko diote, ez gurasoek jarri dioten izenaz”.
- Zer izen jarriko zenieke seme-alabei?

Hona erabil ditzakezun esaldi batzuk:

- *Nik izen luzeak ez ditut gustuko; niri motzak gustatzen zaizkit: Eba, Martin...*
- *Ni ados nago zurekin. Eta, gainera, euskaldunak direnak gustatzen zaizkit: Maddi, Beñat*
- *Izen laburrak ez zaizkit gustatzen, baina hori ezin dugu kontrolatu.*
- *Nik uste dut izen laburtua ere kontuan hartu behar dela. Esaterako, Mirari izena gustatzen zait, baina Mira ez.*
- *Nik mutila balitz Luken jarriko nioke, eta neska balitz, Sara.*

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

# ERANTZUNAK

## 1- Erregistroan

### 1.1-

Gurasoek Emigdia izena **jarri nahi zioten** haurrari.  
Izen erregistroko langileak **ez zuen onartu** Emigdia izena.  
Azkenean, gurasoek Evelyn izena **jarri diote** haurrari.

### 1.2-

Gurasoek Emigdia izena **jarri nahi zidaten**, baina erregistroko langileak ez **ziren** utzi izen hori jartzen, eta azkenean Evelyn izena jarri **zidaten**.

### 1.3-

1. Nire izena Sonia da, baina erregistroan Sofia izena dut. Gurasoek Sonia jarri nahi **zidaten**, baina izen errusiarra zen eta debekatuta zegoen. Azkenean, erregistroan Sofia izena jarri **zidaten** gurasoek.
2. Nire ahizpari Edurne izena jarri nahi **zioten** gurasoek, baina garai hartan erregistroko langileak ez **ziren** utzi gurasoei izen euskalduna jartzen, eta azkenean erregistroan Nieves izena jarri **zioten** gurasoek. Duela urte batzuk aldatu zuen izena.
3. Niri Juan Carlos izena jarri **zidaten** gurasoek. Niri ez zait gustatzen, batez ere abizena Rei delako (galegoa), eta Juan Carlos Rei... barre egiten didate.
4. Niri aitak amonaren izena jarri nahi **zidan**, baina amak ez **zion** utzi, amonak Leona izena zeukalako. Eskerrak! Azkenean, gurasoek Amaia izena jarri **zidaten**.

## 2- Izen bereziak

	EGIA	GEZURRA
Norak oso urte txarra pasatu du.		X
Gaur autoa autopistan geratu zaio, ez atzera ez aurrera.	X	
Bi ordu baino gehiago eman ditu garabia noiz etorriko.		X
Gidari batzuek gabonetako zuhaitza ematen zuela esan diote Norari.		X
Norari autoaren erradiadorea eta kulata hondatuta daudela esan dio mekanikariak.	X	
Etxean sartzeko giltzarik ez zuela konturatu da bertara iritsitakoan.	X	
Arotzak lagundu dio Norari etxeko atea irekitzen.		X
Udaltzainak oso erantzun beroa eman dio Norari honek eskerrak eman dizkionean.		X
Nora asko poztu da hilekoa etorri zaiola antzeman duenean.		X
Donostiara lanera autobusek joatea oso ideia erakargarria da Norarentzat.		X
Noraren ustez, biharko eguna hobea izango da.	X	

### 3- Izena laburtzeko ohitura

- Karlosek uste baino izen laburtu gehiago aurkitu ditu. **(Egia)**
- Karlosen ustez, hizkuntza gutxitan gertatzen da izenak laburtzeko fenomeno hau. **(Gezurra)**
- Gurasoei aholkatzen die seme-alaben izena aukeratzerakoan, izen laburtua ere kontuan hartzeko. **(Egia)**
- X. Amurizaren ustez, izenak laburtzea ez da gaur egungo fenomeno, lehen ere egiten zen. **(Egia)**
- Euskaltzaindia gero eta gogorrago ari da jokatzeko izenak laburtzearen kontra. **(Gezurra)**
- Guraso batzuek ez zuten lortu bere alaba Katalin izenarekin erregistratzerik. **(Gezurra)**
- Xabierren ustez, askatasun handia egon behar luke gai honetan; baina kontrol minimo bat bai. **(Egia)**
- Ez izenetan bakarrik, abizenetan ere gertatzen da silabak laburtzea. **(Egia)**
- Izen batzuekin gertatu da alde batetik laburtu egin direla eta bestetik luzatu. **(Egia)**

### 4- Askatasun pixka bat utziko nuke

**ESATARIA:** Arautu egin beharko **litzateke** hau guztia? Edo iruditzen zaizu libre utzi beharko **litzatekeela**?

**XABIER AMURIZA.** Nik askatasun pixka bat ez **nuke** gaizki ikusiko. Orain erregistratzen denean, ba, burugogor jarri beharrean, ba, Katalin edo Kattalin, bi formak onartzea. Baina hor burugogor jarrita ez dugu ezer egiten. Gero beste kontu bat da bakoitzak bere izena nola erabili nahi duen...

Subjektuak berak onartzen duenean, ba, berak hori egiten duenean burugogorkeria **litzateke**, ba, ez uztea gizonak izena nahi duenaren arabera erabiltzea. Baina, koño, araudi minimo bat beharko **litzateke**, baina zabala, askatasun handikoa.